

PEDAGOGIA

Ainhoa MAISTERRA UDI

BEGIAK ITXI ETA HAUR
HEZKUNTZARI ONGI ETORRIA
EMAN

*CIERRA LOS OJOS Y DA LA
BIENENIDA A EDUCACIÓN
INFANTIL*

TFG/GBL 2017



Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Haur Hezuntzako Irakasleen Gradua /
*Grado en Maestro de Educación
Infantil*

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Infantil

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

**BEGIAK ITXI ETA HAUR HEZKUNTZARI ONGI
ETORRIA EMAN**

***CIERRA LOS OJOS Y DA LA BIENVENIDA A
EDUCACIÓN INFANTIL***

Ainhoa MAISTERRA UDI

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Ainhoa MAISTERRA UDI

Izenburua / Título

Begiak itxi eta Haur Hezkuntzari ongi etorria eman / Cierra los ojos y da la bienvenida a Educación Infantil

Gradu / Grado

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

M^a Lourdes Aparicio Agreda

Saila / Departamento

Pedagogia saila / Departamento de Pedagogía

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2016/2017

Seihilekoa / Semestre

Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduak ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituenak. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluek atal teorikoa garatzeko bidea eman digute; honetan azaltzen den informazioa fidagarria dela ziurtatzeko eta hau nola

antolatzen jakiteko, modulu honetan eskuratutako ezagutzak ezinbestekoak izan dira. Horrez gain, eskolako antolaketa ulertzen lagundu digute, gaur egun dugun hezkuntza sistema ezagutzeko aukera emanez.

Didaktika eta diziplinako moduluak, bestalde, oinarrizko prestakuntzako moduluak praktikan jartzeko baliagarriak izan dira, egun erabiltzen diren eta gaiari loturikoak diren metodologiak azalduz. Horrela, ondoren aurkezten den esku-hartzeari bidea eman diote hauek.

Halaber, Practicum moduluak atal praktikoan nabarmentzen dira; izan ere, marko teorikoan azaldutakoari egiazkotasuna emateko, Practicum aldia egindako ikastetxe batean oinarritzen da proposamena.

Azkenik, aukerako moduluak (kasu honetan Pedagogia Terapeutikoa) aurkezten den lan osoan azpimarratzen da, ikusmen desgaitasunari loturiko nahasmenduen ezaugarriak, gaiarekin erlazionatutako hezkuntza behar bereziak zein esku-hartzea azaltzen baitira, atal praktikoan hauei erantzuna emanez.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira “INTRODUCCIÓN” eta “CONCLUSIONES” atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

Laburpena

Gero eta gehiago dira hezkuntza premia bereziak aurkezten dituzten ikasleak. Hauei beharrezkoa duten hezkuntza erantzuna emateko, eskola inklusiboa lortzea beharrezkoa da; ikaslearen onarpena zein ezagutza erraztu eta haren gaitasunak baloratzuz parte-hartzea sustatzen duen eskola, alegia.

Aintzinean gizartean onartuak ez baziren ere, ikusmen desgaitasuna zuten pertsonen ahotsa entzutea lortu zuten pixkanaka, gaur egun eskola arruntetan eskolatuak izatera iritsi direlarik. Horrela, eskubide berdintasuna lortu da, beharrezkoak dituzten laguntza eta baliabideak eskuratuz.

Jarraian aurkezten den lana, beraz, itsutasun kasu batean zentratutako esku-hartzea da, Haur Hezkuntzan oinarritua izan dena. Testuinguruan kokatze arren, gaiari loturiko zenbait definizio eta kontzeptu azaltzen dira hasierako marko teorikoan, jarraian aurkezten den esku-hartzeari bidea emanez. Proposamenarekin amaitzeko, gradu bukaerako lan honetatik atera diren zenbait ondorio definitzen dira, baita atal praktikoa egiteko beharrezkoak izan diren eranskinak atxikitu ere.

Hitz gakoak: itsutasuna; eskola inklusiboa; hezkuntza behar bereziak; autonomia; Haur Hezkuntza.

Resumen

Cada vez es mayor el alumnado que presenta necesidades educativas especiales. Para ofrecerles una respuesta educativa adecuada, es necesario conseguir una escuela inclusiva; una escuela que facilita la aceptación y el conocimiento del niño; una escuela que, valorando las capacidades del alumno, impulsa su participación.

Aunque anteriormente no eran bien recibidos en la sociedad, la voz de las personas con deficiencia visual se fue escuchando, llegando, así, a escolarizarse en escuelas ordinarias, logrando la igualdad de derechos.

El trabajo que se presenta a continuación, es una intervención centrada en un caso de ceguera, basada en Educación Infantil. Para ponernos en contexto, en la parte teórica se explica alguna definición y concepto relacionado con el tema, dando pie a la intervención que se encuentra seguidamente. Para terminar con la propuesta, se

analizan algunas conclusiones, sin olvidar los anexos que han sido necesarios para la parte práctica.

Palabras clave: ceguera; escuela inclusiva; necesidades educativas especiales; autonomía; Educación Infantil.

Abstract

Students with special needs have been increasing lately. In order to offer an appropriate educational response, it is necessary to reach an inclusive school; where acceptance and knowledge gather, taking into account students' capability, to enhance participation.

Even if before were not well accepted, people suffering from visual impairment are, nowadays, included in society, allowing them to be attended in ordinary schools and gaining equality rights.

Therefore, this essay is an intervention centered in blindness in Kindergarten. Setting it into context, the theoretical part explains concepts related, engaging it to the intervention. To end up, some conclusions are analyzed, as well as the attaches needed for the practical part.

Key words: blindness; inclusive school; special needs; autonomy; kindergarten.

Aurkibidea

Introducción.....	1
1. Atal teorikoa	3
1.1. Inklusiora iritsi baino lehen eman den bide luzea	3
1.1.1. Ikusmen desgaitasunaren hezkuntza inklusiboa mundu mailan.....	3
1.1.2. Ikusmen desgaitasunaren hezkuntza inklusiboa Espainian.....	5
1.2. Gaur egungo egoera.....	6
1.2.1. Mundu mailan.....	6
1.2.2. Espainian.....	7
1.3. Ikusmen desgaitasuna duten ikasleak	12
1.3.1. Definizioa eta sailkapena	12
1.3.2. Garapenaren ezaugarriak	15
1.3.2.1. Garapen kognitiboa.....	17
1.3.2.2. Garapen psikosoziala	18
1.3.2.3. Garapen motorea	18
1.3.3. Hezkuntza behar bereziak	19
1.4. Hezkuntza komunitatearen erantzuna	24
1.4.1. Ikaslearen eskolatzea.....	25
1.4.2. Ikaslearen txosten psikopedagogikoa	26
1.4.3. Ohiko eta berariazko giza baliabideen esku-hartzea.....	26
1.4.4. Espazio inklusibo baten antolaketa	27
1.4.4.1. Ikasgela.....	27
1.4.4.2. Baliabide materialak.....	28
1.4.5. Familia.....	32
1.4.6. Eskolaz kanpoko espezialistak eta zerbitzuak	33
2. Atal praktikoa.....	35

2.1. Ikaslearen aurkezpena	35
2.2. Proposatutako kasuaren esku-hartzea	36
2.2.1. Familia.....	36
2.2.2. Eskola	38
2.2.2.1. Egokitzapenak ikasgelan	43
2.2.2.2. Egokitzapenak pasabidean.....	54
2.2.2.3. Egokitzapenak komunean	56
2.2.2.4. Egokitzapenak patioan	58
2.2.2.5. Egokitzapenak material didaktikoan.....	59
2.2.2.6. Egokitzapenak giza baliabideetan	63
2.3. Profesionalen ideietatik bidaiatuz	64
Conclusiones	71
Erreferentziak	75
Eranskinak.....	78
Eranskina I	
Eranskina II	
Eranskina III	
Eranskina IV	

INTRODUCCIÓN

Cada vez son más los casos conocidos de discapacidad visual en las aulas. Con el objetivo de facilitar la escolarización de estos pequeños y adecuar el proceso de enseñanza y aprendizaje a sus necesidades y capacidades, es necesaria una respuesta inmediata; esto es, una vez realizada la matriculación y recibido el informe psicopedagógico del niño o de la niña, es necesario ponerse en marcha para dar una apropiada bienvenida al ámbito escolar.

Este trabajo de fin de grado (TFG), está basado en la idea de proponer una intervención para el caso de que se escolarizara un niño con ceguera de tres años de edad al colegio público de Sarriguren "Joakin Lizarraga". De esta manera, se explican los primeros cambios que se deberían hacer tanto en el aula como en la escuela; primeros ajustes que harán más fácil el proceso de adaptación al primer curso del segundo ciclo de Infantil. Podemos decir, entonces, que este análisis está redactado con un fin práctico.

Antes de comenzar a explicar las primeras adaptaciones, es importante conocer los conceptos básicos del tema. Para ello, encontramos en primer lugar un breve viaje de la escuela inclusiva en su búsqueda para dar respuesta al alumnado con discapacidad visual. Este retroceso de años atrás, hace un pequeño resumen de la situación pasada y actual de la deficiencia visual, a nivel mundial como a nivel estatal.

Una vez conocida la historia, analizamos los datos estadísticos que nos facilita el Instituto Nacional de Estadística (INE) y, en el caso de España, la Organización Nacional de Ciegos (ONCE), donde se pueden observar los altos porcentajes que encontramos hoy en día entorno a esta discapacidad. A continuación, conocemos más de cerca qué es la deficiencia visual, que tipos encontramos y cuáles son las características y necesidades de las personas en esta situación, poniendo el foco en niños de edad escolar.

Respecto a la parte práctica, se pueden contemplar dos apartados. El primero de ellos se sitúa en el colegio público de Sarriguren "Joakin Lizarraga" y se analizan las primeras adaptaciones que se harán para recibir a un niño o niña de tres años con ceguera. Seguidamente, se hace una pequeña investigación en torno a la formación del

profesorado ante situaciones de necesidades educativas especiales; dicho en otras palabras, analizaremos si el profesorado de este centro educativo, considera que tiene la formación necesaria para responder a un alumno con ceguera.

Finalmente, se redacta un pequeño resumen a modo de conclusiones, explicando de manera breve las principales claves para dar una respuesta educativa adecuada a las necesidades de un alumno o alumna con deficiencia visual en la etapa de Educación Infantil. Asimismo, encontraremos los anexos que han sido necesarios para redactar la parte práctica.

.

1. ATAL TEORIKOA

Jarraian aurkezten den oinarri teorikoa lau atal nagusietan banatuta dago, ikusmen desgaitasuna hobeto ezagutzea helburu dutenak. Lehenik eta behin, ikusteko zailtasunak zituzten pertsonen egoera azaltzen da, hezkuntza ikuspuntu bat emanez. Jarraian, gaur egungo datu estatistikoak zehazten dira, bai mundu mailan baita Espainian ere. Halaber, desgaitasun hau zertan datzan, honen ezaugarriak zein motak eta bereizgarri hauek dituzten pertsonen hezkuntza behar bereziak zeintzuk diren definitzen dira hurrengo puntuan. Marko teorikoari bukaera emateko, errealitate honen aurrean ematen den hezkuntza komunitatearen erantzuna zein den azaltzen da, ikaslea protagonista den erantzuna prestatzeko jarraitzen den bidea, alegia.

1.1. Inklusiora iritsi baino lehen eman den bide luzea

Aintzinean, ikusmen desgaitasuna zuten pertsonak ez ziren gizartean onartuak, ez lanerako ezta hezkuntza jasotzeko ere balio ez zutela pentsatuz. Hori horrela, aurrehistoriatik baztertuak izan dira, eskaletasunean biziz. Gaur egungo egoerara iristeko, mendeetan zehar aldaketa handiak bezain garrantzitsuak eman dira, pixkanaka itsuak zein ikusmen urritasuna duten pertsonen hezkuntza ahalik eta aberasgarriena, egokiena baita inklusiboena ere izateko. Baina, etorkizunari begira, beharrezkoa da bereziki ikusmen desgaitasunaren populazioaren, eta orokorrean gizartearen, eboluzioak markatutako birgaitze programak egokitzeko bidea jarraitzea (Ortiz, 2011). Honekin batera, ezinbestekoa da adieraztea programa hauek indibidualak izatearen garrantzia, ikasle bakoitzaren ezaugarrietara egokituz eta ikasle batetik bestera programaren beharrak aldatuz (Ipland eta Parra, 2009).

1.1.1. *Ikusmen desgaitasunaren hezkuntza inklusiboa mundu mailan*

Ikusmen desgaitasuna sufritzen zuten pertsonen bazterketa egoera ikusita, erakunde zein autore ezberdinen bitartez hauen hezkuntza jasotzeko eskubidea defendatzen hasi ziren. Jarraian hezkuntza eta ikusmen desgaitasunari buruzko historiaren laburpena aurkitzen da, Jerónima Ipland eta Diego Parrak-n (2009) oinarriturik.

Itsuentzako lehenengo hezkuntza programa dokumentatua Egiptoko Al-Ashar Unibertsitatean sortu zen, K.a. 970. urtean. Kurtso honek 12 urteko epe batean material guztiaren memorizazioan zetzan. Horrez gain, hortik ipar ekialdera, Txinan, K.a. II. mendean zehar itsuek kofradiak sortuz biltzen ziren, guztiek baldintza berdinei jarraituz. Elkarte hauen helburuak bi ziren: haien artean laguntza eman eta ikusmen desgaitasuna zuten pertsonen eskubideak defendatu. Hala ere, nahiz eta haiek haien eskubideak defendatu, oraindik gizartetik baztertuak izaten ziren; Erroman, esaterako, haien lurraldea defendatzeko balio ez zuten, hauek eliminatzen ziren.

V. eta XVII. mendeetan zehar, aldaketak ez ziren oso nabarmenak izan; izan ere, Erdi Aroan gizarteak desgaitasun bisuala zuten jendea pobreziarekin eta eskaletasunarekin lotzen jarraitzen zuen. Gainera, Aro Modernoan, hauei buruzko uste faltsuak (baztertuak izan behar ziren, ezin zuten hezkuntza jaso, ikusmen desgaitasuna izateak adimen urrikoa izatea zekarren, etab.) sortu ziren, haiekiko harremana baita haientzako lanbidea ere ezeztatuz. Esan beharra dago, ordea, Errenazimenduan zehar aurrerapen garrantzitsu bat eman zela, hain zuzen, 1517an Girolano Cardano-k (1501-1576) alfabetoen letrak egurrez diseinatu zituen, itsuek irakurtzen eta idazten ikasteko.

XVIII. mendean, Denis Diderot idazle eta filosofoak (1713-1784) itsuek haien gaitasunak garatzeko hezituak izateko aukera zutela defendatu zuen, horretarako gizarteak bere jarrera aldatu behar zuela adieraziz. Honen harira, XVIII. mendearen erdialdean, Valentin Haüy-ek (1745-1822) "*Institut National de Jeunes Aveugles*" sortu zuen Parisen, 1784an. Institutu horretan erliebea zuten letrekin lan egiten zen, baina irakurtzen eta idazten ikasteko metodo hau oso mantsoa eta, ondorioz, egokia ez zela konturatu ziren. Arrazoi horrengatik, Louis Braille-k (1809-1852) ikaskuntza hau erraztuko zuen beste metodo bat aurkituko zuela proposatu zion bere buruari, azkarrago eta modu egokiagoan ikas dezaten. Azkenean, braileren 1. edizioa 1829an sortu bazen ere, 1844. urtean Institutioak Braille sistema onartu egin zuen.

Garai horretatik aurrera, itsuentzako eskola ezberdinak sortu ziren zenbait lurraldetan, esaterako: Liverpooletan (1791), Berlinen (1806), Amsterdamen (1808), e.a. Estatu Batuetan sortu zen lehenengo eskola 1829an Massachusetts-eko kapitalean eraiki zen,

Bostonen. Hortik aurrera, estatu horretan eskola dezente sortu ziren, 1832tik 1875ra hogeitahamar hezkuntza eraikin sortuz.

Sortutako eskola guzti hauek ikusmen desgaitasuna zuten pertsonentzako ziren; hots, XIX. mendean eskola berezietan hazten ziren. Egoera hau ikusita, Estatu Batuetako Samuel Howe (1801-1876) hezitzaileak eta Europako Johann Wilhem Klein (1765-1848) legelariak hezkuntza mota hau zalantzan jarri zuten, pixkanaka ikasle hauek eskola arruntetara joatearen beharraren ideia indarra hartuz. Natalie Barraga (1915-2014) doktoreak egindako ikerketan (1964) ikusmen urritasuna zuten ikasleek haien eraginkortasun bisuala hobetu zezaketela egiaztatu zuen.

Eskola arruntaren ideia aurrera eramateko, Haüy-k eta Klein-ek irakasle berri baten irudia beharrezkoa zela defendatu zuten. Horretarako, irakasle izateko formakuntzak eta ikasketak oinarri pedagogiko handia izan behar zuela azaldu zuten, hezkuntza berezietara zuzenduta egon behar zelarik.

Urteak pasa ahala aurrerapen garrantzitsuak egon arren, ikasle hauentzako laguntza optikoak ez egoteak ikaskuntza moteldu zuen. Lehenengo baliabide materialak 1910. urtean azaldu ziren, teleskopioa, mikroskopioa eta lupak izan zirelarik. Dena den, tresna hauek oso garestiak, pisutsuak eta murrizak ziren, beraz, ez zeuden edonorren eskura.

Ikusmen urritasuna zuten pertsonentzako lehenengo klinika Estatu Batuetan sortu zen 1953an, "*Industrial Home for the Blind*" enpresaren eskutik. Klinika honen helburua birgaitze bisuala egitea zen. Europan, Danimarkan izan zen lehenengoa, bost urte beranduago sortua. Urte hauetan, nahiz eta ikusmen erabilerak oraindik eztabaida handiak sortzen zituen, zentro hauen lana oso eraginkorra izan zen; izan ere, haur zein helduaren behar errealak hartzen zituzten kontuan, esan bezala, gerora hauen jarraipena eta birgaitzea egiteko.

1.1.2. Ikusmen desgaitasunaren hezkuntza inklusiboa Espainian

Espainian, beste estatuetan gertatzen zen bezalaxe, desgaitasun bisuala zuten pertsonenganako ukapena eman zen urteetan zehar. Gehienetan, gizartetik baztertuak izaten ziren, hezkuntza baita lan munduan ere sartzeko ateak itxiz. 1857an Moyano Legea sinatu zenetik gaur egun arte, poliki-poliki pertsona hauen hezkuntza jasotzeko

eskubidean aurrerapenak eman dira, urte hauetan plazaratu diren hezkuntza legeek gai honi buruz sakonki hausnartuz.

1938ko abenduaren 13an *“Organización Nacional de Ciegos Españoles”* (ONCE) izeneko erakundea jaio zen. Erakunde honek estatuan existitzen ziren eskola bereziak batu eta estatuak berak onartutako lau eskola sortu zituen: Madrilan, Sevillan, Alicanten eta Pontevedran. Beranduago, Bartzelonan, eskola publiko bati gaineratutako beste eskola bat sortu zuen.

Horrez gain, 1994. urtean batzar garrantzitsu bat antolatu zuen, *“Congreso Estatal sobre prestación de servicios para personas ciegas y deficientes visuales”* izena hartu zuena. Bertan, 1300 batzarkide baino gehiago batu ziren eta desgaitasun bisualeko herrialde batekin lan egiteko zein esku-hartzea koordinatzeko irizpideei buruz aritu ziren, elkarren artean ideiak trukatu.

Gizakiaren sorreratik egun arte aldaketa handiak eman badira ere, aurrerapen dezente iritsi behar dira benetako hezkuntzako inklusioa izateko. Ikusmen desgaitasuna duten haur zein helduek eskola arruntetan hezkuntza jasotzeko eskubidea lortu badute ere, oraindik asko dago hobetzeko. Hobekuntza hau, indibiduala izan behar dela ezin dugu ahaztu, pertsona bakoitzaren ezaugarri, behar, ahalmen, gaitasun, testuinguruetara egokitzeko beharrezkoak diren egokitzapenak eta laguntzak eskainiz.

1.2. Gaur egungo egoera

1.2.1. Mundu mailan

Munduko Osasun Erakundeak (<http://www.who.int/es/>) 2014ko abuztuan berritutako dokumentuan azaldu zuen moduan (OMS, 2001), 285 millioi pertsona dira munduan ikusmen desgaitasuna pairatzen dutenak; hauetatik 39 milioi ikusmen desgaitasuna totala edoitsuak dira, beste 246 milioiak, aldiz, ikusmen urrituak.

Mundu mailako datu hauek munduko eskualde ezberdinetan sailkatu zituen erakunde honek (Resnikoff et al., 2004) (*Ikus taula 1*), eremu horietako bakoitzean zenbat pertsonak ikusmen galera osoa eta zenbatek urritasuna adieraziz.

Taula 1. Ikusmen desgaitasuna duten pertsonen kopurua mundu mailan. OMS, 2002
(Nik moldatua).


	Afrika	Amerika	Ekialdeko Europa	Europa	Hego-ekialdeko Asia	Ozeano barea
Populazio totala	672.238	852.551	502.823	877.886	1.590.832	1.717.536
Itsua diren pertsonen kopurua	6.782	2.419	4.026	2.732	11.587	9.312
Ikusmen urritasuna duten pertsonen kopurua	19.996	13.116	12.444	12.789	33.496	32.481
Ikusmen desgaitasuna duten pertsonen kopuru totala	26.778	15.535	16.469	15.521	45.083	41.793

Mundu mailan kausarik garrantzitsuena ez zuzendutako errefrakzio akatsak izan da. Hala ere, herrialde baxuetan kataratak dira itsutasunaren kausa nagusia. Aipatu beharra dago, azkeneko 20 urtetan infekzio-gaixotasunekin erlazionatutako desgaitasun bisualen kasuak nabari murriztu direla. Honekin batera, munduan ematen diren desgaitasun mota honen kasuen %80a saihestu edo senda daiteke.

1.2.2. Espainian


Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) 2008 urtean egindako “*Encuesta de Discapacidad, Autonomía personal y situación de Dependencia*” (EDAD) izeneko inkestatik abiaturik, Espainian 979.200 pertsona dira ikusmenarekin erlazionatutako desgaitasunen bat dutenak (*ikus 1. irudia*), hauek sei urtetik gorakoak direlarik. Populazio honetatik 920.900 ikusmen urritasuna pairatzen dute eta 58.300, ordea,

itsutasuna. Honen ondorioz, Espainian ematen den ikusmen desgaitasunaren prebalentzia %2,14-koa da.



1. irudia. Espainian dauden ikusmen desgaitasun kasuen kopurua. EDAD 2008.


Autonomia erkidegoetan arreta jarriz, Extremadura (%3,9), Gaztela Mantxa (%3,20), Gaztela eta Leon (%2,93) eta Galizia (%2,76) dira prebalentzia altuena dutenak (*Ikus 2. irudia*). Nagusitasun hau biztanleri zahartuaren kopuru altua edota diabetesa izateko prebalentzia altuagoa dutelako eman daiteke. Nafarroan arreta jarriz, ikusmen galera izateko prebalentzia baxua duen autonomia erkidego bat da, %1,76 prebalentzia izanik.



Begiak itxi eta Haur Hezkuntzari ongi etorria eman

2. irudia. Ikusmen desgaitasunaren prebalentzia Espainiako autonomia-erkidegoetan (100 biztanleko). EDAD 2008.

Adina eta sexua kontuan hartzen baditugu, prebalentzia adinak gora egin ahala handituko da (*Ikus 3. irudia*); izan ere, 65 urtetik gora emango dira kasu gehienak. Honekin batera, sexuak ere eragin zuzena du; 65 urteak arte ikusmen desgaitasunak gizonezkoetan eragin handiagoa du emakumezkoetan baino, baina adin horretatik aurrera egoerak buelta eman eta emakumezkoetan kasu gehiago ematen dira: 449.300 emakume (%67) eta 223.800 gizon (%33), zehazki.




3. irudia. Ikusmen desgaitasuna duten pertsonen sailkapena, adina eta sexua kontuan hartuz. EDAD, 2008.

Espainiako itsuen erakunde nazionalak (<http://www.once.es/>) 2016an publikatutako datuak aztertuta (*Ikus taula 2*), 72.256 dira urte horretan zehar elkartera afiliatutako pertsonak. Andaluzia (15.633) eta Katalunia (10.584) dira afiliatu gehien duten autonomia erkidegoak, Madril (9.821) atzetik doala. Sexua ere azaltzen da honetan, non emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino altuagoa baita.


Taula 2. 2016 urtean ONCE-n afiliatutako pertsonen kopurua. ONCE, 2016. (Nik moldatua).

2016 URTEAN ONCE-n AFILIATUTAKO PERTSONEN KOPURUA									
AUTONOMIA	<18 URTE		19-64 URTE		65< URTE		subtotal		GUZTIRA
ERKIDEGOA	G	E	G	E	G	E	G	E	G+E
Andaluzia	605	524	4.489	3.661	2.741	3.613	7.835	7.798	15.633
Aragoi	70	69	461	400	409	701	940	1.170	2.110
Asturias	44	34	454	357	275	423	773	814	1.587
Balearrak	48	35	376	334	218	277	642	646	1.288
Kanariak	148	99	1.056	993	563	729	1.767	1.821	3.588
Kantabria	15	15	257	215	161	252	433	482	915
Gaztela eta Leon	125	102	966	853	856	1.324	1.947	2.279	4.226
Gaztela-Mantxa	120	98	835	655	522	692	1.477	1.445	2.922
Katalunia	343	212	2.569	2.264	2.122	3.074	5.034	5.550	10.584
Extremadura	44	51	584	521	350	539	978	1.111	2.089
Galizia	135	122	1.062	923	636	899	1.833	1.944	3.777
Errioxa	14	6	138	127	139	200	291	333	624
Madril	313	241	2.443	2.138	1.867	2.819	4.623	5.198	9.821
Murtzia	100	68	717	668	440	634	1.257	1.370	2.627
Nafarroa	29	25	226	172	158	224	413	421	834
Euskal Herria	58	40	782	679	721	1.187	1.561	1.906	3.467
Balentzia	250	175	1.794	1.392	1.093	1.460	3.137	3.027	6.164
Guztira	4.377		35.561		32.318				72.256

Honekin batera, adinari lotutako grafikoa ere aurkezten du ONCE-k (*Ikus 4. irudia*), afiliatutako pertsonen gehiengoa 65tik gorakoak izanik. Gainera, elkarteko kide diren %80ak ikusmen urritasunari lotutako premiak ditu, %20ak itsutasuna izanik (*Ikus 5. irudia*).



4. irudia. ONCE-n afiliatutako pertsonen ehunekoa adinaren arabera. ONCE, 2016. (Nik moldatuta)



5. irudia. ONCE-n afiliatutako pertsonen ehunekoa gabeziaren arabera. ONCE, 2016. (Nik moldatuta)

Nafarroan fokua jarritz, 834 pertsona izan dira 2016. urtean ONCE-n bildutakoak. 19-64 urte bitartekoak dira gehienak, 398 izanik eta haurrei begira gutxienak dira, 54 guztira. NHBBZ eta ONCE erakundeekin harremanetan jarri arren, ezinezkoa da Nafarroan dauden ikusmen desgaitasunen kasuen kopurua zehaztea, isilpeko datua baita.

1.3. Ikusmen desgaitasuna duten ikasleak

1.3.1. Definizioa eta sailkapena

Ikusmen desgaitasuna arazo zien ikusmen zailtasun ezberdinak barne hartzen dituen terminoa da. Munduko Osasun Erakundearen (MOE) hitzak irakurtzen baditugu (CIE-10, 2006ko berritze eta errebisioarekin), egoera hau lau mailatan sailkatzen du:

- Ikusmen normala
- Neurrizko ikusmen desgaitasuna
- Ikusmen desgaitasun larria
- Itsutasuna

Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroko ikusmen urritasuneko taldeak (<http://creena.educacion.navarra.es/equipos/visuales/>) MOE-ren hitzak oinarritzat hartzen ditu desgaitasun bisuala definitzerako orduan. Ikusmen zorrozatasuna eta ikus-eremuaren arabera maila ezberdinak definitzen ditu:

- *Ikusmen normala.* Ikusmen zorrozatasuna 0,8 edo handiagoa
- *Neurrizko ikusmen urritasuna.* Ikusmen zorrozatasuna $< 0,3$
- *Ikusmen urritasun larria.* Ikusmen zorrozatasuna $< 0,12$
- *Ikusmen urritasun sakona.* Ikusmen zorrozatasuna $< 0,05$
- *la itsutasun totala.* Ikusmen zorrozatasuna $< 0,02$
- *Itsutasun totala.* Ikusmen zorrozatasuna ez argiaren pertzepziorik


Ikasleen zailtasun hauek ulertzeko, aipatzekoa da ONCE-k emandako ikusmen zorrozatasunaren eta ikus-eremuaren definizioak adieraztea:

- *Ikusmen zorrozatasuna.* Objektuen forma eta itxura hautemateko gaitasuna, baita haiei buruzko xehetasunak bereizteko gaitasuna ere.
- *Ikus-eremua.* Ikuspegi zentraletik kanpo kokatuak dauden objektuak hautemateko gaitasuna.

Aditu ezberdinen sailkapen anitzak izan arren, azaldutako zailtasunen bat duen ikasle batek nola ikusten duen ulertu eta azaltzea; izan ere, ezaugarrien artean heterogeneotasun handia ematen da (Alberti eta Romero, 2010). Hala ere, bi psikologo


hauek ikasleen artean gehien ikusten diren ikusmen desgaitasun mota batzuk badaudela adierazi dute, besteak beste:

- *Ikusmen lausoa*. Ikusmen zorroztasuna urruti zein hurbileko ikusmenean eragina du; ikus-eremuan, aldiz, ez dago ikusmen arruntarekiko ezberdintasunik.




6. irudia. Ikusmen lausoa duen ikasle batek jasotzen duen irudia. (Alberti eta Romero, 2010: 22)

- *Ikusmen zentrala*. Ikusmen zorroztasuna erdigunean mantentzen da; ikus-eremu periferikoa murrizten da.




7. irudia. Ikusmen zentrala duen ikasle batek jasotzen duen irudia. (Alberti eta Romero, 2010: 23)

- *Ikusmen periferikoa*. Ikus-eremu zentralean eragiten du.




- 8. irudia.** Ikusmen periferikoa duen ikasle batek jasotzen duen irudia. (Alberti eta Romero, 2010: 23)

- *Eskotoma anitzeko ikusmena*. Ikusmen zorroztasuna eta ikus-eremua eskotomen tamaina, lekua eta kantitatearen mendekoak dira. Zenbat eta eskotoma gehiago, orduan eta zailtasun handiagoak izango ditu.



- 9. irudia.** Eskotoma anitzeko ikusmena duen ikasle batek jasotzen duen irudia. (Alberti eta Romero, 2010: 24)

- *Ikusmena liluraldiekin.* Ikusmen urritasuna ematen da gehiegizko argia dagoelako.



10. irudia. Ikusmena liluraldiekin pairatzen duen ikasle batek jasotzen duen irudia.

(Alberti eta Romero, 2010: 24)

1.3.2. Garapenaren ezaugarriak

Begietako azterketa egitean, eta honetan desgaitasunen bat pairatzen badu, diagnostikoan alterazio minimo batzuk azalduko dira. Alterazio hauek arin edo zorrotzak izan daitezke, bai eta denboraldikoak edo iraunkorrak. Honekin, beraz, ikusmena zenbait momentu zein egunetan aldakorra izan daiteke, emango den ikus erantzuna mantsoa izango delarik. Modu honetan, ikus ariketek neke handia sortarazten dute, ikaslearen ikus arretan eraginez. Hala ere, afektazio hau ezberdina izaten da ikasle batetik bestera; ume batzuk ezinezkoa dute estimulu bat mugimenduan ikustea. Beste batzuk, aldiz, mugimendua da, hain zuzen, estimulu hori ikustea ahalbidetzen duena. Objektu bat antzemateko dituzten zailtasunak ikusita, beraz, estrategia ezberdinak erabiltzen dituzte, esaterako: beste estimulu batzuen agerpena ekiditeko objektura edo argazkira hurbiltzen dira.

Ildoari jarraituz, egoera honetan dauden pertsonen zailtasun handiak izaten dituzte oinarritzko ikusmen funtzioak eta ikusten duten hori ulertzeko beharrezkoak diren ikus trebetasunak garatzeko (Bueno, Espejo, Rodriguez eta Toro, 1999). Hala ere, ikusmen desgaitasun larria, ikusmen urritasuna edota itsutasuna pairatzen duten ikasleek, ikusmen normala dutenen ikus ariketa berdinak egiteko aukera dute, beti ere, hauek aurrera eramateko beharrezkoa duten laguntza jasoz. Modu orokor batean, hauek dira

psikologo hauek zerrendatzen dituzten ikasle hauen zailtasun eta ikasteko edo mundua ezagutzeko ezaugarriak:

- *Informazio ikusmenaren bidez jasotzeko zailtasuna.* Ikusmenaren galera osoa edo partzialaren ondorioz, haien ingurua modu global batean antzemateko zailtasunak dituzte. Hori dela eta, beste zentzumenen ikaskuntza garatzea ezinbestekoa dute: entzumena, ukimena, dastamena eta usaimena. Modu honetan, zentzumen horien praktikari esker, inguratzen duen horren informazioa jasoko dute, beti ere, haiekiko irudi propioa osatuz.
- *Errealitatearen pertzepzio analitikoa.* Inguratzen dituzten objektuak zatika ezagutuko dituzte; hots, pixkanaka-pixkanaka dituzten zentzumen guztiak erabiliz, objektu baten forma osatuko dute, haren ezaugarri guztiak kontuan hartuz eta amaiera, jaso duten informazio guzti horrekin, lotura bat eginez. Honekin, beraz, objektu horren testura, tamaina, itxura, pisua, e.a. buruzko ezagutzak poliki jasoko dituzte, inguratzen duen testuingurua ezagutuz.
- *Imitazioaren ikaskuntzan zailtasuna.* Haur txikien ezaugarri garrantzitsu bat imitazioaren bidezko ikaskuntza da. Ikusmen desgaitasuna duten ikasleek ikaskuntza hau aurrera eramateko zailtasunak dituzte, ikus galeraren ondorioz, ezinezkoa dute haien inguruan duten hura osotasunean imitatzea. Hori dela eta, ikaskuntza multisensoriala aurrera eraman beharko dute.
- *Ikaskuntzaren prozesuan mantsotasuna.* Aurreko zailtasunen harira, ikusmenaren galerak ikaskuntza prozesuan mantsotasuna dakar; izan ere, haurrak inguratzen duen testuingurua ezagutzeko esfortzu handiagoa egin behar du beste zentzumen batzuen erabilerari esker, ez baitu modu global batean pertzibitzen ingurunea.

Azaldutako ezaugarri guzti hauek haurraren garapen kognitibo, motore zein psikosozialean eragin zuzena dute, nahiz eta beste faktore batzuk ere (ikusmen desgaitasunak inposatzen dituen mugak, nortasunarekin erlazionatutako alderdiak, familia, gehiegizko babesak, etab.) horretan eragina duten. Hurrengo lerroak idazteko Espainiako Hezkuntza Ministerioak egoera honi erantzuteko (d.g.) sortutako txostena hartu dut oinarritzat, zehazki 3. eta 5. moduluak.

1.3.2.1. Garapen kognitiboa

Garapen kognitiboa haurra eta ingurunearen arteko interakzioen ondorioa da. Ikusmen desgaitasunik ez duen haur batek bere inguruan gertatzen dena behatzen du, beste pertonekin komunikatzen da eta gertatuko dena aurreratzen du. Desgaitasun bisuala duen haur batek, aldiz, ez du inguruan dituen estimuluen informazio osoa jasotzen. Hori dela eta, bide ezberdinak erabili behar ditu falta zaion informazio hori jasotzeko; beste zentzumenak, hain zuzen.

Alde batetik, informazio zehatza emango dion soinu zein zarata ezberdinak entzun dezake; bestetik, objektuak ukitzearen beharra du testura, forma, tamaina, gogortasuna, e.a. bezalako nolakotasunak ezagutu ahal izateko. Behin informazio ezberdina bide anitzetik jaso duela, loturak egin beharko ditu haien artean, guztien artean irudi bat sortuz. Horretarako, esperientzia anitzak eskaini beharko dizkiogu, bai kalitateari dagokionez baita kantitateari dagokionez ere. Modu honetan, bere jakintzen bidez ikaskuntza berriak eraikitzen joango da (Tomas, 2011). Hori horrela, ikusmen desgaitasuna duen ikasle batek garapen kognitibo mantsoagoa izango du.

Horrez gain, jolas sinbolikoaren garrantzia aipatzekoa da ere, haur hezkuntzan haurraren garapen kognitiboaren adar garrantzitsu bat baita. Ikusmen urritasuna edota itsutasuna duen ikasle batek errealitatera hurbiltzen ez diren jolasak baztertzen ditu, esaterako: panpinekin edota animaliekin jolastea; izan ere, hauek ez dituzte errealitatean dauden pertsona edo animalien ezaugarri berdinak, ez eta soinu, usaimen edo ukimen berdinak ere ez (Martin, Gomez eta Sanchez, 1994). Lucerga, Sanz, Rodriguez eta Escudero (1992) ikusmen urritasuna duten haurraren jolasaren zenbait ezaugarri orokor zerrendatzen ditu:

- Jolas sinple eta harkorra izateko joera.
- Sormen gutxiko eta bat-batekoak ez diren jolasetan aritzeko joera.
- Agresibitate murriztuaren manifestazioak.
- Objektuekiko interes eskasa.
- Helduekiko dependentzia handia.
- Elementu espazialak ulertzeko zailtasuna.

1.3.2.2. Garapen psikosoziala

Haur guztiak haien testuingurura egokitzen joan behar dute. Hezkuntza premia bereziak duten haurren kasuan, egoera hori haien garapen emozionalaren arrisku faktore garrantzitsu bat da, bereziki familia eta haurraren arteko harremanetan; bada, haurrak, bere ikusmen galeraren ondorioz ematen dituen interakzio zein erantzunak, familiaren (batez ere gurasoen) erantzunak baldintzatzen ditu. Horrek, hauen motibazioa jaitsi edota frustrazio egoerara iritsi dezaten suposatu dezake.

Haurra eta gurasoen arteko erlazioak duen garrantzia guztiok ezagutzen dugu, batez ere, hasierako afektuzko erlazioa sortzen denean. Lehenengo kontaktu hau, nagusiki, begiradaren bidez burutzen da. Ikusmen desgaitasun kasu baten aurrean, ikusmenaren galerak lehenengo kontaktu hau mugatu dezake, bat-bateko komunikazioa, estimulazioa eta imitazioa baldintzatuz. Kasu hauetan, gurasoek zenbaitetan ez dakizkitez haien seme-alabaren komunikatzeko eta harremanatzeko ahaleginak interpretatzen, eta, horrek, haurraren komunikazio eta sozializazio prozesuan eragin negatiboak sortu ditzake.

Txikiak ikusten ez duen arren, seinale ezberdinak igortzen ditu haien egunerokoan dauden helduak ezagutzen dituela adieraziz. Halatan, beharrezkoa da berarekin kontaktuan dauden helduak seinale hauek behar bezala ezagutzea, horrela, afektuzko lotura egoki bat eta haurraren garapen osasuntsu bat sustatuz.

Hitz gutxitan, guztiz ongi ikusten ez duen haur batetzat zailagoa izaten da mundua ulertu eta ezagutzea. Honenbestez, eguneroko bizitzan ematen diren egoerak sistematizatzen eta antolatzen lagundu behar diegu, haiekin gorputz-kontaktuaren bidez, mugimenduen bidez eta hitzezko kontaktuaren bidez momentu oro elkarri eragiten. Honekin, beraz, ikusmen desgaitasuna duen haur batekin aritzen diren helduek honen komunikatzeko saiakerak ongi interpretatzen jakitearen garrantzia ikusten dugu, baita hauen eskaerei ongi erantzuten jakitearen garrantzia ere.

1.3.2.3. Garapen motorea

lkerketa ezberdinek frogatu duten moduan, garapen motorea ikaskuntzaren, garapen intelektualaren eta nerbio sistemaren heldutasunaren oinarria da. Ikasleak estimulazio

egokia jasotzen badu, atzerapen psikomotoreak saihestuko dira, gorputz-eskema, espazioaren antolaketa, denboraren ikaskuntza, autonomia pertsonala, e.a. eraikiz.

Aurreko puntuetan azaldu bezala, desgaitasun bisuala duten ikasleek ez dituzte inguruan dituzten estimuluen informazio osoa jasotzen. Hori dela eta, sarritan ezagutzen ez duten espaziotik mugitzeko zailtasuna izaten dute, erortzeko edota talka egiteko beldurrez. Egoera honek mugitzeko motibazio eza eragiten du haurraren, haren garapen motorea mantsotuz.

Mugitzeko dituzten zailtasun hauek ekiditeko, espazioaren antolaketan aritu beharra dugu; hots, espazioan aldaketa fisikoak ematea ezinbestekoa da, baita haurrari erreferentzia puntu batzuk ematea ere, horrela, espazio hauetatik aritzeko erraztasun handiagoa izango du, hasieran laguntzarekin (dituen beldur horiek gainditzen lagunduz) eta, beranduago, modu autonomoan (Tomas, 2011). Honen harira, ikasleak espazioak eta hauetan aurkitzen diren elementuak ezagutu beharko ditu, ingurugiro ordenatu eta seguru batean haziz.

Halaber, haur batek modu koordinatu eta egoki batean mugitzea eta ibiltzea lortu nahi badugu, postura bakoitza erakustea ezinbestekoa da; izan ere, orokorrean ikusmen falta dela medio, hauek gaizki praktikatzten ditu edota batzuetan ez ditu postura guztiak eskuratzen. Honenbestez, akats hauek garaiz zuzentzen ez badira, etorkizunean eragin negatiboa izango dute (Martin et al., 1994). Bederen, garrantzitsua izaten da haurrak postura hauek egin dezan jolas ezberdinak proposatzea, hauekiko motibazioa piztuz.

1.3.3. Hezkuntza behar bereziak

Aurreko orrialdeetan azalduetako ikusmen desgaitasun ezberdinek zenbait behar berezi eragiten dituzte. Hurrengo lerroetan bai itsutasuna (*Ikus taula 3*) baita ikusmen urritasuna duten ikasleek (*Ikus taula 4*) dituzten hezkuntza behar bereziak azalduko dira (Aguirre et al., d.g.).

Taula 3. Itsua den ikasleak dituen hezkuntza premia bereziak.

HEZKUNTZA BEHAR BEREZIAK ITSUA DEN IKASLEAN	
Ingurune fisiko eta sozialaren ezagutzarekin lotutako beharrak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Materiala egokitzearen beharra. Itsutasun totala sufritzen duten ikasleek haien inguruko mundua ikusmena ez den beste zentzumen batzuekin ezagutzen dute (entzumena, ukimena, etab.). Ezagutza hau errazteko asmoarekin, haien eskura egongo diren materialak egokitzearen beharra dute. ▪ Ikaslearen ikaskuntza erritmora egokitzearen beharra. Ikusmenaren galerak haurraren garapena mantsotzea dakar. Egoera honek ikusmen desgaitasuna duten ikaslearen erritmora egokitzearen beharra suposatzen du, momentu bakoitzean dagoen fasea errespetatuz. ▪ Imitazioaren bidezko ikaskuntza modu fisiko batean burutzearen beharra.
Identitatearekin eta autonomia pertsonalarekin erlazionatutako beharrak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Sozialki onartuak diren jarrerazko posturak sustatzearen beharra eta estereotipatuak diren jokabideak gutxitzearen beharra. ▪ Objektuak manipulatzeko aukerak areagotzearen beharra. ▪ Espazioan mugitzeko eta moldatzeko beste zentzumenak erabiltzearen beharra. ▪ Mugitzeko teknika bereziak ikastearen beharra. ▪ Autonomia pertsonalerako ohiturak ikastearen beharra. Itsutasunak oinarrizko ohituren behaketa eta imitazioa galarazten du. Ondorioz, ohitura hauek haien gorputzean bizitzeko

	<p>beharra dute, askotan, ahozko informazio osagarria jasoz.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Haien egoera ezagutzearen eta onartzean beharra. Itsutasuna sufritzen duten ikasleek haien desgaitasuna ezagutu behar dute, baita honek suposatzen dituen ondorioak ere. Honela, errealitatera egokitutako auto-irudia osatuko dute eta haien eremu pertsonalean, sozialean, profesionalean edota eskola eremuan aurkituko dituzten zailtasunak modu positibo batean gaindituko dituzte.
<p>Idatzizko informaziora heltzeko beharrak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Irakurtzeko eta idazteko bestelako sistema bat erabiltzen ikastearen beharra (normalean, Braille sistema). ▪ Braille sistemaz gain, beste teknikak erabiltzearen beharra (arbelean idatzitako informazioaren ahoskera, irudien entzumenezko deskribapena, pelikulak, testu liburuen entzunezko aurkezpenak, e.a.) ▪ <i>“Hardware”</i> eta <i>“Software”</i> programa teknologikoak erabiltzeko aukerak izatearen beharra, beharrezkoak diren egokitzapenak eginez.

Taula 4. Ikusmen urritasuna duen ikasleak dituen hezkuntza premia bereziak

HEZKUNTZA BEHAR BEREZIAK IKUSMEN URRITASUNA DUEN IKASLEAN	
Ingurune fisiko eta sozialaren ezagutzarekin lotutako beharrak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ahozko eta ukimenezko laguntza jasotzearen beharra. Ikusmen urritasunak informazio osoa jasotzea oztopatzen duenean, ukimenezko zein ahozko informazio osagarria ematea beharrezkoa izaten da.
Informaziora heltzeko beharra	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikusmen estimulazioa eta entrenamenduaren beharra. Ikasle hauek ikusten ikastea beharrezkoa dute, <i>“aprender a ver”</i>; hots, dituzten ikusmen arrastoak modu eraginkor batena erabiltzen ikastea. ▪ Laguntza optimoak eta ez optikoak erabiltzearen beharra, haien ikusmen arrastoen erabilera hobetuko dutenak.
Identitatearekin eta autonomia pertsonalarekin erlazionatutako beharrak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Sozialki onartuak diren jarrerazko posturak sustatzearen beharra eta estereotipatuak diren jokabideak gutxitzearen beharra. ▪ Objektuak manipulatzeko aukerak areagotzearen beharra. ▪ Espazioan mugitzeko eta moldatzeko beste zentzumenak erabiltzearen beharra. ▪ Mugitzeko teknika bereziak ikastearen beharra. ▪ Autonomia pertsonalerako ohiturak ikastearen beharra. Ikusmen urritasunak oinarrizko ohituren behaketa eta imitazioa galarazten du. Ondorioz, ohitura hauek haien gorputzean bizitzeko beharra dute, askotan, ahozko informazio osagarria jasoz.

	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Haien egoera ezagutzearen eta onartzean beharra. Ezaugarri hauek dituzten ikasleek haien desgaitasuna ezagutu behar dute, baita honek suposatzen dituen ondorioak ere. Honela, errealitatera egokitutako auto-irudia osatuko dute eta haien eremu pertsonalean, sozialean, profesionalean edota eskola eremuan aurkituko dituzten zailtasunak modu positibo batean gaindituko dituzte.
<p>Bere momentuko ikus egoera ezagutzeko eta onartzeko beharra</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikusmen urritasuna duten ikasleek zailtasun handiak dituzte haien laguntza beharra onartzeko. Ezeztapen honek laguntzak baztertzera eramaten ditu; hau da, askotan ez dituzte laguntzak (optikoak zein optikoak ez direnak) ez eta hezkuntza arreta onartzen.

Behar guzti hauei erantzuteko metodologia egoki bat aurrera eramatea beharrezkoa da, beti haurren beharretara egokituz (Bueno et al., 1999). Alde batetik, espazioaren egokitzapena ezinbestekoa izango da, haurren ezaugarriak kontua hartuz. Beraz, giro ezberdinak kontrolatzeko eta aldatzeko aukera izatea garrantzitsua da. Bestetik, jolasaren garrantzia izan behar dugu buruan, batez ere haur hezkuntzan. Hori dela eta, estimulazio bisuala zein beste ariketak egiteko metodologia ludiko bat erabiltzea funtsezkoa da, haurren motibazioa indartuz. Halaber, ikusmenaren eta honen funtzionamenduaren etengabeko ebaluazioa egin beharko dugu, beti ere haren garapena lagunduko duen programa indibiduala sustatuz.

Laburbilduz, zaila da ikusmen desgaitasuna duen ikasle batek zer ikusten duen jakitea. Hori horrela, desgaitasun honen sailkapen mota ezberdinak aurkitzen ditugu, autorearen eta honek ematen dion ikuspegiaren arabera. Argi dago gabezia honek eragin zuzena duela haurren garapen ezberdinetan, hezkuntza behar berezi batzuk sortuz. Halatan, garrantzitsua da ikasle bakoitza indibiduo bakarra bezala kontuan

hartzea; hots, haur bakoitza mundu bat da eta desgaitasunak modu propio batean eragingo dio.

1.4. Hezkuntza komunitatearen erantzuna

“Ikasle guztiek dute talentua, baina bakoitzaren talentua desberdina da. Ondorioz, hezkuntza-sistemak talentu hori antzeman eta indartzeko behar diren mekanismoak izan behar ditu” (LOMCE, 2013, hitzaurrea I). Legean irakurri daitekeen moduan, ikasle bakoitza ezberdina den heinean bakoitzaren gaitasunetara iristeko baliabideak izan behar ditu hezkuntza sistemak. Modu honetan, “hezkuntza-sistema kalitatezkoa, inklusiboa, integratzailea eta zorrotza denean bakarrik bermatzen da aukeraberdintasuna, eta bidea ematen du ikasle guztiek euren gaitasunak erabat garatzeko” (LOMCE, 2013, hitzaurrea I).

93/2008 Foru Agindua, hots, Nafarroako Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako zein Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun arautzen duen legea, eta 0-6 etapan fokua jarritz, hurrengoa zehazten du:

“Haur hezkuntzako etapan (...), arreta berezia jarriko da premiak atzematen eta horiei erantzun goiztiarra ematen, haur guztien garapen fisikoa, afektiboa, soziala eta intelektuala lortzen lagunduko duen prebentzio eta konpentsazio neurri gisa”. (93/2008 Foru Agindua, 2008, atariko)

Hitz gutxitan, premia bereziak dituzten ikasleak, beste guztiak bezala, entzuteko eta ulertzeko eskubide osoa dute, dituzten zailtasunetan modu egokian erantzuteko esku-hartzea ahalik eta lasterren burutuz; zenbat eta gazteagoa izan subjektua, ikusmena modu eraginkorrean erabiltzeko progresioa azkarrago emateko aukerak hobetoagoak izango dira (Barraga, 1997)

Hezkuntza-erantzun hau emateko, hezkuntza komunitate osoaren parte-hartzea ezinbestekoa izango da:

“Hezkuntza-laguntzaren premia berariazkoak dituzten ikasleei erantzun egokia eman behar zaie eta haiek eskolatzeko beharko diren langileak eta baliabideak aurreikusi”. (93/2008 Foru Agindua, 2008, I. Kap., 4.art., 2.puntua)

Halatan, erantzun hauek indibidualak izan beharko dira, ikasle bakoitzaren ezaugarri eta gaitasunetara egokituz eta programaren beharrak ikasle batetik bestera aldatuz.

Eskola inklusibo bat lortzeari emango diogu bidea horrela; hezkuntza ikaslearen aniztasunera egokitzen duen espazio fisikoa; ikaslearen onarpena zein ezagutza erraztu eta haren gaitasunak baloratuz parte-hartzea sustatzen duen eskola; bidezko gizarte batean euskarria izango den ikaskuntza esanguratsua eskaintzen duen eskola (Valcarce, 2011).

Gela arrunt batean hezkuntza premia bereziak dituen ikasle baten presentziak, beraz, inklusioa eta sozializazioa sustatzea dakar, ez bazterketa. Gainera, kasu bakoitzari egokitzeko, Ikastetxearen Aniztasun Plana sortzea beharrezkoa da, ikaslearen eskolatzea, giza baliabideen antolaketa, curriculumeko sarrera elementuen egokitzapena, gelaren antolaketa, familiak, eskolaz kanpoko zerbitzuak, e.a. kontuan izango dituen.

1.4.1. Ikaslearen eskolatzea

Hezkuntza premia berezia duen ikaslearen eskolatzea txosten psikopedagogikoan lortutako informazioaren arabera izango da (93/2008 Foru Agindua, 2008); hots, segun eta txosten horrek zein informazioa ematen duen eskola modalitate batera edo bestera egokituko da, modalitateak hauek direlarik:

- Ikastetxe arruntean
- Hezkuntza bereziko ikastetxean

Ikusmen urritasunaren kasuan, ikasleak ikastetxe arruntean eskolatuak izango dira.

Haurra eskolatu izan delarik, prozesu honen jarraipena egin beharko da: ohiko eta ez-ohiko berrikusketa. Hezkuntza etapa bakoitzaren amaieran egingo da lehenengo jarraipena. Ez-ohikoa, aldiz, ikaslearen egoeran aldaketa esanguratsu bat ematen denean burutuko da.

1.4.2. *Ikaslearen txosten psikopedagogikoa*

Desgaitasun bisuala duen ikaslearen txosten psikopedagogikoa bere hezkuntza ibilbidearen oinarria izango da; hau da, ikasle honen eskolatzea, hezkuntza neurriak eta baliabideen antolaketa txosten honen araberakoa izango da. Txostena ebaluazio psikopedagogiko baten bidez osatuko da, honetan ikaslearen datu pertsonalak, ezaugarriak, dituen premiak eta erantzuna azalduko delarik.

Eskola esparruan HLU taldea, tutorearekin batera, izango da ebaluazioaz arduratuko dena. Kontuan izango da ikaslearen oftalmologoak egindako ebaluazioa ere, modu honetan, ahalik eta txosten aberatsagoa lortu daitezzen.

Honekin guztiarekin, ez dugu ikaslearen garapenaren eremu ezberdinak soilik ebaluatzen, hura inguratzen duen testuingurua ere behatzen dugu: alde batetik, eskola ingurugiroa behatuko dugu, besteak beste: ikasgela, patioa eta beste espazioak (kiroldegia, jantokia, pasabideak, e.a.) eta, bestetik, ingurugiro familiarra. Halatan, ebaluazio integrala burutuko dugu. Horretarako, teknika ezberdinak erabiliko ditugu, besteak beste: behaketak, testak, elkarrizketak, jarraibideen erregistroak, e.a.

1.4.3. *Ohiko eta berariazko giza baliabideen esku-hartzea*

Hurrengoak izango dira eskolako esparruan ikaslearekin kontaktu zuzena izango duten profesionalak:

- *Tutorea.* Desgaitasuna duen ikaslearekin egunerokoan dagoen profesionala da. Bere rola ikasleari behaketa egitea eta HLU taldearekin batera prestatutako esku-hartzea aurrera eramatea izango da. Halaber, familiarekin kontaktu zuzena izango du.
- *Pedagogo Terapeutikoa (P.T.).* Astean zenbait saioetan ikaslearekin zuzeneko esku-hartzea egingo du. Aldi berean, ikaslea behatu eta honen balorazioa egingo du HLU taldearekin batera, orientazio taldearekin zein kanpoko zerbitzuekin kontaktuan jarriz. Honi erantzuteko, beharrezkoak diren materialak eta errekurtsoak, sortu, egokitu eta kudeatuko ditu. Halaber, familiak orientatu, informatu eta prestakuntza emango die.

- *Zaintzailea*. Ikaslearen erreferentzia gelan egon daitekeen hezitzailea da. Eguneko saio guztietan edo saio batzuetan soilik egongo da, kasuak kasu. Tutorearekin batera, behaketa lanak egingo ditu, ikaslearen beharrei erantzuteko esku-hartzea aurrera eramanez.
- *Ikastetxeko beste profesionalak (gainontzeko irakasleak, psikologoa, jantokiko langileak, e.a.)*. Zenbait saioetan edota ikastetxeko beste esparruetan ikaslearekin kontaktuan egongo diren profesionalak dira.

Ikasleak esku-hartze zuzena eta esanguratsua jaso dadin, harekin lan egingo duten pertsona guztien artean etengabeko koordinazioa eta komunikazioa egotea ezinbestekoa izango da. Halaber, laguntzen antolaketa eta banaketa egotea ere garrantzitsua da elkarren artean oztopatuak ez izateko (Tomas, 2011). Hori horrela, laguntza mota ezberdinak emango dira: gela barruan zein gela kanpoan, modu indibidual batean edota taldean.

1.4.4. Espazio inklusibo baten antolaketa

Aurreko puntu batena azaldu den bezala, ikusmen desgaitasuna duten ikasleek ikastetxe arruntetan eskolatuak izaten dira. Ikasle hauen beharrei erantzuteko, espazioa inklusiboa izatea garrantzitsua da, nahiz eta inklusioaren kontzeptua oraindik nahaspilatsua izan (Ainscow eta Echeita, (2011). UNESCOk (Ainscow eta Echeita zitatu zuten moduan, 2011) inklusioa ikasle guztien behar aniztasunari heltzen eta erantzuten dion prozesua bezala definitzen du. Prozesu honetan, eskola esparruaren alderdi guztiak hartu behar dira kontuan. Hala ere, ikusmen desgaitasuna duen ikasle bati begira, curriculumeko sarrera elementuak dira gehien bat egokitzen direnak.

1.4.4.1. Ikasgela

Ikasgelari dagokionez, argitasunaren, arbelaren, altzarien eta dagoen materialaren arabera antolatuko da. Jarraian aurkitzen diren iradokizunak orokorrak dira, beraz, kontuan izan behar ditugu ikasle bakoitzaren ezaugarriak, ikasgelaren antolaketa aberatsa izan dadin:

- Ikasgela argi naturala nahikoa duela ziurtatu.

- Argi naturalak edota artifizialak sortutako lilurak zein itzalak saihestu.
- Ikasgelako txoko ezberdinetan argitasuna egokia dela ziurtatu.
- Beharrezkoak diren altzariak soilik erabili.
- Altzariak modu ordenatu batean antolatu, ikaslea erraztasunarekin mugitzeko.
- Material espezifikoak erabiltzeko beharrezkoa den espazio fisikoa erraztu.

1.4.4.2. Baliabide materialak

Ikasleak dituen hezkuntza behar bereziei ongi erantzungo dion espazio bat lortu nahi badugu, ezinbestekoa izango da baliabide material ezberdinak eskura izatea (Martin et al., 1994). Gaur egun material egokitu aunitz dago, hortaz, jarraian, haur hezkuntza etapan erabiltzen diren material egokitu ezberdina azaltzen da:

- *Brailín panpina*. Braille metodoa ikasteko panpina da (*Ikus 11. irudia*), haurra idazten eta irakurtzeko metodo horretara hurbilduz. Panpinaren sabelean 6 botoi ditu, Braille alfabetoko letra guztiak adieraziz.




11. irudia. Brailin panpina. ONCE

- *Ipuin egokituak*. Gehienetan tinta eta braille moduan idatzitako ipuinak dira (*Ikus 12. irudia*). Testuaz gain, bertan azaltzen diren marrazki eta irudiak testura ezberdinez osatuak daude, batzuetan erliebea erabiliz.



12. irudia. Itsuentzako egokitutako ipuinak. CREENA

- *Irudien bingoa.* Haren inguruan hamabi irudi ezberdin dituen ruleta batez, irudi hauetatik sei dituen oholtxo desberdinez eta imanezko kutxa batez osatuta dago (*Ikus 13. irudia*). Jolas honen helburua irakurketa-idazketa prozesuan hastea da. Horretarako, erruletan dagoen gezia mugiarazi eta, oholtxoan, egokitutako irudiaren ingerada adierazi beharko du erakargarriarekin. Maila ezberdineko oholtxoak aurkitzen dira: siluetak dituenak, ingeradak dituenak eta Braille-raz idatzitakoak.



13. irudia. Irudien bingoa. ONCE

- *Hitza-objektua erlazionatzeko jolasa.* Adinari egokitutako jolasa da, haur hezkuntzaren azkeneko mailan erabiltzen hasten dena. 6 edo 8 hutsune dituen taula erabiliko da (adinaren arabera). Honekin, hitz kopuru berdina duten laminak eta hauetan azaltzen diren elementuen kutxa erabiltzen da (*Ikus 14. irudia*). Horrela, ikasleak hutsunean azaltzen den lamina irakurri eta haren gainean dagokion elementua jarriko du.



14. irudia. Hitza-objektua erlazionatzeko jolasa. ONCE

- *Matematikaren altxorra.* Logika matematikoa maneiatzeko jolasa da. Haur Hezkuntzaren bigarren zikloan (3-6 urte) erabiltzen da, taldeka edota modu indibidual batez. Tamaina txikiko oholtxo ezberdinez eta elementu ezberdinak dituen hiru kutxaz osatuta dago (*Ikus 15. irudia*). Oholtzan itsasteko elementu ezberdinak, Braille metodoan idatzitako zein erliebean dauden zenbakiak eta zeinu matematikoak (+,-,=) dira kutxa hauetan daudenak. Horrela, ekintza ezberdinak egiteko aukera du ikasleak, besteak beste: elementuak zenbakiekin erlazionatu, bederatzi zenbakiraino doan progresio numerikoa, elementuak maneiatuz gehiketa eta kenketa lantzen hastea, e.a.



15. irudia. Matematikaren altxorra. ONCE

- *Neurriak lantzeko arbela.* Belkroarekin itsaskorra den arbela da (*Ikus 16. irudia*), 3 urteko haurrekin erabiltzen hasten dena. Arlo ezberdineko kontzeptuak lantzeko erabiltzen da, adinaren arabera egokituak izaten direnak. Neurriak lantzeko asko erabiltzen den jolasa da hau, goian-behean, ezker-eskuin, barruan-

kanpoan, etab. bezalako kontzeptuak lantzeko aukera ematen baitu. Halaber, hiru dimentsioko objektuak izatetik zapalak izatera dagoen prozesu hori ulertzen laguntzen du.




16. irudia. Neurriak lantzeko arbela. ONCE

- *Bi piezetako zenbakien puzzlea.* Egurrezko piezak dira, bi zatitan banatuak (*Ikus 17. irudia*). Hauek, erliebezko irudi ezberdina dute (zati bat zenbakiarekin eta beste zatia zenbakiari dagokion kantidadarekin), haurrak elkartu behar dituenak. Haur Hezkuntza etapa osoan erabili daitekeen jolasa da.



17. irudia. Bi piezetako zenbakien puzzlea. ONCE

- *Geometria lantzeko puzzlea.* Hutsuneak dituen oholtxa batez dago osatua, non hauetan erliebean dauden eta haur hezkuntzan lantzen diren irudi geometriko ezberdinak azaltzen diren (*Ikus 18. irudia*). Horrela, irudi horiek islatzen dituzten kartak dagokion hutsunean sartu beharko du haurrak.



18. irudia. Geometria lantzeko puzzlea. ONCE

1.4.5. Familia

Ikusmen desgaitasuna duen haur baten jaiotzak familian desdoitze emozionala sortzea dakar, horrek behar batzuk sortzen dituelarik, besteak beste: doitze emozionalaren beharra, haurrak pairatzen duen egoerari buruzko informazioa jasotzearen beharra, haien seme-alaben zainketan formatzearen beharra eta sostengu sozialaren beharra (Aguirre et al., d.g). Behar hauek aldakorrak izaten dira familia batetik bestera; hots, familia guztietan ez dira ondorio guzti hauek agertzen ez eta modu berdinean ere ez. Horrenbestez, familia bakoitzean orientazio eta esku-hartze ezberdina egitea beharrezkoa da, denboran zehar aldatuz joango direnak.

Hezkuntza eremuari dagokionez, ikasle hauen eskolatzeak anbibalentzia emozionala eragiten du gurasoengan: alde batetik, poztasuna dakar, haien seme-alaba eskola arruntean hasiko delako, horrek suposatzen duen haurraren haztearekin. Baina, bestetik, jadanik desagertuak zeudela uste ziren emozioak sortzen dira, hain zuzen, beldurra eta zalantzak: nola egokituko da? Lagunak izango ditu? Ikasiko du? etab. (Alberti eta Romero, 2010).

Guk, eskolako profesional gisa, familia laguntzeko haien egoera ezagutu beharko dugu lehenik eta behin, testuinguru sozial eta familiarrari buruzko datuak jasoz. Honen harira, haiekin egindako elkarrizketak kutsu handia izaten dute, hauetatik informazio dezente hartzen baita, bai beraiek transmitituko informazioa baita guk behatutako informazioa ere.

Halaber, nahiz eta guk, irakasle bezala, zalantzak izan, segurtasuna eta ditugun jakintzekiko ziurtasun puntu bat transmititu behar diegu, horrek familiaren antsietatea eta beldurrak gutxituko baititu. Gainera, momentu oro elkarlanean arituko gara, horrek ikaslearen garapena erraztuko duelarik: alde batetik, eskolan aurrera eramaten ditugun proposamenak baita egindako esku-hartzea ere azalduko dizkiegu, eta, bestetik, entzungo ditugu, entzuteko eskubidea baitute; “erabakiren bat hartu edo aldatu beharra dagoenean, ikaslea eta haren guraso edo legezko ordezkariak jakitun jarriko dira eta entzun egingen zaie” (93/2008 Foru Agindua, 2008).

1.4.6. Eskolaz kanpoko espezialistak eta zerbitzuak

Eskolan aurkitzen diren profesionalaz gain, kanpoko erakunde ezberdinek haurren arretan laguntzen dute, esaterako: ONCE erakundea edota, Nafarroaren kasuan, CREENA zentrotik arazo bisualetan formatutako espezialistak.

Espanian ONCE erakundea aurkitzen dugu, ikusmen-urritasuna duen pertsonentzako gizarte-zerbitzu espezializatu eta aurrerakoiak eskaintzen dituen erakundea. Bere azken helburua bertan afiliatuak dauden pertsonen autonomia pertsonala eta gizarteratzea sustatzea da. Horretarako, itsuek eta ikusmen desgaitasuna dutenek behar dituzten alderdi edota zerbitzu espezializatu guztiak biltzen ditu: hezkuntza, enplegua, errehabilitazioa, egokitutako laguntza teknikoa, e.a.

Hezkuntzari dagokionez, itsutasuna edo ikusmen urritasuna duen ikaslearen eskolatzeko eta gizarteratze inklusiboa erraztea da erakundearen helburu nagusia. Egun, ikusmen desgaitasuna duen ikasleriaren %98 baino gehiago eskola arruntetan eskolatuak izaten dira, eskolaren kurrikulum orokorra jarraituz. Ikasle hauek ikasgelan erabat integratzeko, ONCEk material irisgarria irakasle, ikaskide eta familiari eskaintzen die, guztiak baitaude hezkuntza prozesuan sartuta. Halaber, hauentzako irakaskuntza bereziak biltzen dituen prestakuntza eskaintzen du erakunde honek, erreferentziako bost zentroetan: Madrilan, Bartzelonan, Pontevedran, Sevilla eta Alicanten. Zentro hauek Hezkuntza Baliabideen Zentroa izena hartzen dute eta arautu gabeko prestakuntza ziloak eskaintzen dute.

ONCEn afiliatzeko bi baldintza bete behar dira, besteak beste: Espainiako nazionalitatea izatea eta bi begietan gutxienez hurrengo parametroak izatea:

- 0,1eko edo gutxiagoko ikusmen zolitasuna.
- 10 graduko edo gutxiagoko ikuseremua.

Nafarroan Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroa (NHBBZ) aurkitzen da. Erakunde honen ikusmen urritasuneko taldeak, itsutasuna edo ikusmen urritasuna duen ikasleria hartuko du kontuan, 0,3 edo gutxiagoko ikusmen zolitasuna eta 10 graduko edo gutxiagoko ikuseremua aurkezten duten ikasleria, hain zuzen. Eskola orientazioan, Pedagogia Terapeutikoan eta ONCE-n espezializatutako profesionalek osatzen dute taldea. Hauen funtzioa, hezkuntza zentroen orientazio departamentuak edo UAEko orientatzaileak egindako eskaerei erantzutea da, haur hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza zein hezkuntza bereziko zentroek egindako eskaerak kontuan hartuz.

NHBBZko ikusmen urritasun taldeak zentroetan esku-hartzen du, hauek aholkatuz eta eskola, familia zein gizarte eremuetan ikusmen desgaitasuna duen ikasleriaren inklusioa sustatzen duten neurriak egokituz. Honek, ikaslearekin, hezkuntza zentrotako irakasleekin eta familiarekin esku-hartzea egitea dakar. Talde honen arreta maizkoa izango da, desgaitasunaren graduaren, ikaslearen ezaugarrien eta egoera bakoitzean ematen diren balditzen arabera izango dena.

Laburbilduz, Ikusmen desgaitasuna duen ikasle bati hezkuntza erantzun zuzena eta osatua emateko, eskola barruan baita eskolatik kanpo egin behar da lana. Horretarako, ikaslea hartu behar dugu protagonistatzat, dituen gaitasun eta zailtasun guztiak onartuz. Halaber, eta bere garapenean eragin zuzena duenez gero, ikasleaz gain haren testuingurua ere ezagutu behar dugu, haurra inguratzen duen ororen artean elkarlanean eta modu koordinatu batean esku-hartuz.

2. ATAL PRAKTIKOA

Atal teorikoan sakondutako gaia aintzat hartuta, itsutasunean oinarritutako kasu baten esku-hartzea garatuko da segidan. Tutore bezala emango den esku-hartze hau, ikasturtearen hasieran oinarritua izango da, beraz, ikaslea eskolara etorri baino lehen eman beharreko egokitzapenak azalduko dira, espazio, baliabide zein profesional profilari dagokionez.

Testuinguruan kokatze arren, jarraian ikaslearen deskribapena aurkituko da, non honen ezaugarriak eta ezaugarriei begira ikaslearentzat erabakitako helburua zein den azalduko den. Helburu honi bidea emateko, kasuaren esku-hartzea proposatzen da, esan bezala, curriculumeko sarrera elementuetan gehien bat egokitzapenak eginez. Horretarako, hezkuntza komunitate osoa hartuko da kontuan; familia, eskola eta eskola zein eskolaz kanpoko profesionalak, alegia.

Aipatu beharra dago, esku-hartzea normalizazio printzipioan oinarritua izan dela; izan ere, ahalik eta neurri arruntenak hartu dira, guztien arteko aukera berdintasuna sustatuz; hots, ekitatea bultzatuz. Horrela, ikaslea ez da taldetik baztertua izango eta ikasgela osoarentzat aberasgarriak izango diren egoerak sortuko dira.

2.1. Ikaslearen aurkezpena

Hiru urte dituen eta ikusmen urritasun totala, itsutasuna, pairatzen duen ikasle baten tutorea izango naiz. Sarrigurengo Joakin Lizarraga Ikastetxe Publikoan eskolatuko da aurtengo ikasturtean, haren lehengo urtea eskolan izango delarik. Hori horrela, ikasturtea hasi baino lehen ikasle honi begira, eta tutorearen papera izanik, egingo diren egokitzapen zein aldaketa guztiak azalduko dira, beti ikaslea egingo den ororen protagonista izango delarik.

Haur Hezkuntzako 2.zikloko kurrikuluma hartuz gero (23/2007 Foru Agindua, 2007), hiru arlo nagusitzen dira: nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala, ingurua ezagutzea eta hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena. Atal praktikoa hau, aipatutako lehenengo arloan zentratzen da, hots, ikaslearen autonomia; izan ere, 3 urte izanik eta dituen ezaugarriak ezagututa, ikaslearen ongizatea eta eskolako egunerokoan ibiltzen

den espazioetan (ikasgela, patioa, komuna) modu autonomoan mugitzea da ikasle horrekiko hartu den helbururik nagusiena.

Zehaztutako helburu hau errealitate bihurtzeko, ikaslearen txosten psikopedagogikoak emandako datuak ezagutzea ezinbestekoa da; ikaslea osotasunean ezagutu behar dugu, alegia. Honenbestez, ondoren azaltzen den esku-hartzean informazioa eskuratzeko emandako pausuak eta hauei erantzuteko egin beharreko aldaketak azalduko dira, baita egiteko modua ere.

2.2. Proposatutako kasuaren esku-hartzea

Ikaslea izango da jarraian aurkezten den esku-hartzeren protagonista. Honenbestez, honen inguruko informazioa biltzea izango da emango den lehenengo pausua; izan ere, eskolan erantzun egokia eman nahi bada, egingo diren egokitzapen guztiak jasoko den informazioaren arabera izango dira. Horretarako, familiarekin lehenengo kontaktua izatea ezinbestekoa izango da, familiak emango baititu haurraren garapenari buruzko datuak.

Ikaslea hobeto ezagututa, espazio fisiko, baliabideetan zein profesionaletan egokitzapenak egitera ekingo da. Esparru honetan curriculumeko sarrera elementuak izango dira gehien egokituko direnak. Egokitzapen hauek ahalik eta modu hobeagoan egiteko, eskolan behaketa ezberdinak egin dira, aurrerago ikusiko direnak.

Esku-hartzearekin jarraituz, tutoreen inguruan egindako ikerketa txiki bat aurkeztuko da, non hauek itsutasuna duen ikasle baten tutore izateko prestaturik dauden edo ez hausnartzen den.

2.2.1. Familia

Familia ikasleari emango zaion erantzunaren parte-hartzaile garrantzitsua da. Jadanik aipatu bezala, haurrari buruzko informazioa lortu behar da, erantzuna modu indibidual eta esanguratsu batean izan dadin. Planteatzen den esku-hartzeari hasiera emateko, ikaslearen familiarekin elkarrizketa egingo da klaseak hasi baino lehen, zehazki, iraileko lehenengo astean. Bilera honen helburuak bi izango dira: alde bateik familia eta eskola elkar ezagutzea, eta bestetik, informazioa elkar-trukatzea.

Ongi etorria eskolako sarreran egin eta gero, ikasturtean haurraren ikasgela izango den horretan burutuko da elkarrizketa. Horrela, txikiak hurrengo hilabeteak pasako dituen espazioa nolakoa den ezagutuko du familiak. Garrantzitsua da ikasgelaren txoko guztiak ezagutzeko aukera eskaintzea, konfiantza eta segurtasuna transmitituz.

Tutorea, orientatzailea, PT-a eta ikaslearekin egunean hainbat saio emango dituen zaintzailea izango dira familiarekin elkartuko diren profesionalak. Maiatzaren bukaera eta ekainaren hasiera bitarte ematen diren matrikulazioetan, itsutasuna duen ikasle bat ikastetxean eskolatu dela ezagutuko dute zentroko espezialistek. Hori horrela, ekainean bertan hasiko dira lehenengo pausuak ematen, hala nola, ikaslea ikasturtea pasako duen gela aukeratzen, Nafarroako Gobernuari beharrezkoak diren laguntzak eskatzen, e.a. Honekin, bada, garrantzitsua da paragrafoaren hasieran aipatutako profesional guztiak bileran elkartzea.

Elkarretaratze honen helburua, beraz, informazioa ematea eta jasotzea dela azalduko zaie, haurra beti egiten den ororen protagonista izango dela adieraziz. Eskola eta familiaren arteko koordinazioa izanik, haurrari eta haren ezaugarriei egokitutako erantzun bat emateko aukera egongo dela esango zaie, eskolan hartzen diren erabaki guztien berri izango dutela ziurtatuz. Honekin, etxean ematen diren aldaketak (bai ikasleari dagokionez bai etxeko testuinguruari dagokionez) eskolara ekartzearen garrantzia aipatu egingo da, aldaketa ona zein txarra izan ikasleari emango zaion erantzunean eragin bailezake.

Hurrengoa izango da bileran jarraituko den gidoia:

1. Profesionalen aurkezpena
2. Espazioaren aurkezpena
3. Bileraren helburuen azalpena
4. Familiatik informazioa jaso
 - a. Familia testuinguruaren datuak
 - b. Ikaslearen ezaugarriak
 - c. Etxeko testuinguruari buruzko datuak (errutinak, egunerokoa...)
 - d. Kanpoko zerbitzuekin duten kontaktua

5. Familiari informazioa eman
 - a. Ikaslearen ezaugarriak kontuan hartuz erabakitako helburua
 - b. Ikasgelaren aukeraketa eta behin-behineko moldaketa
 - c. Profesionalen esku-hartzea
6. Ikasgelako familia bilera orokorrean gaiaz aritzeko baimena
7. Agurra

Elkarrizketa modu ordenatu eta dinamiko batean egiteko, tutoreak bilera jarraitzeko gidoia izango du eskuan (*Ikus Eranskina I*). Halaber, familiak emandako datuak gordetzeko erregistro orria (*Ikus Eranskina II*) erabiliko du, beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko kontuan hartuko dena.

Bilketa honen azken aurreko atalean irakurri daitekeen bezala (6.puntua), kurtsoa hasi baino lehen izaten den familia guztien bileran kasu honen berri emateari buruzkoa izango da; hots, gainontzeko familiei itsutasuna duen ikasle bat gelan izango dela azaltzeko baimena. Joakin Lizarraga Ikastetxea ikaslearen aniztasunari egokitzen den eskola dela azalduko zaie; haurraren gaitasunak kontuan hartuz haren parte-hartzea bultzatzen duena. Honenbestez, gaia normaltasunez gelan lantzearen garrantziaz aipatuko zaie, txikiaren hezkuntza inklusiboa bultzatuz. Honekin, hala, gaia naturaltasunez azalduta izango dela adieraziko zaio familiari, beti ere, beraiek baimena ematen duten bitartean. Baiezkoa izatekotan, guztien batze horretan azaleratuko den kasuari buruzko informazioa aldeztetik pasako zaio familiari.

Agurraren azkeneko hitzak, haurra ikasgelako beste ikasle bat dela izango dira; bere indibidualtasun eta ezaugarriekin, beste guztiekin batera egongo dela azalduko zaie, horrek, ikasgelan sortzen dituen egoera aberasgarri guztiekin. Halaber, bilera horretan jasoko den informazioaren arabera, eta beharrezkoa izanez gero, aurretik azalduko egokitzapenak aldatu daitezkeela adieraziko zaie, beti ere, hauen berri izango dutela ziurtatuz.

2.2.2. Eskola

Egues ibarreko Sarriguren herrian kokatzen da Joakin Lizarraga Ikastetxe Publikoa. D ereduan eskaintzen duen eskola berria da hau, 2009-2010 ikasturtean martxan jarri zena. Herriarekin batera, handituz joan da, gero eta ikasle zein profesional gehiago


bertan elkartuz; ikasturte honetan (2016-2017) 703 ikasle eskolatuak izan dira eta osotara 59 profesional daude bertan lanean.

Ikasle kopurua aintzat hartuta, tamaina handiko zentroa da, osotara 6075,99m² dituena. Bi eraikinetan banatzen da: eraikin txikiak 1295,35m² ditu eta Haur Hezkuntzako 3 eta 4 urteko ikasleak daude. Eraikin handia, bestetik, 4780,64m²-z osatuta dago eta Haur Hezkuntza 2.zikloko azkeneko mailako ikasleak eta Lehen Hezkuntza osoa izaten da bertan.

Proposatutako esku-hartzea eraikin txikian zentratuko da; izan ere, bertako ikasgela batean emango ditu egunak haurrak, zehazki 3 urte A gelan (*Ikus 19. irudia*). Ikasgela honen aukeraketa hiru arrazoiengatik izan da: lehenik eta behin, 3 urteko txikiak dauden geletatik metro gehien dituen espazioa da hau. Bestetik, komunarekin zuzenean elkartzen duen atea du, pasabidetik joan behar gabe. Azkenik, patioaren sarbideetik gertuen dagoen ikasgela da, jolastokia inguratzen duen hesiak lagungarri izanik.


Halaber, eraikin txikiko planoari erreparatuz gero (*Ikus 20. irudia*), umeak egunerokoan erabiliko dituen ohiko espazioak bertan daudela ikus daiteke, besteak beste: ikasgela, patioa (eskolarako sarbidea ere dena), komuna eta psikomotrizitate gela. Espazio banaketa horrek, haurrak autonomia garatzeko erraztasuna izatea dakar, elkar ondoan dauden espazioetan mugitzeko aukera izango baitu.

HAUR HEZKUNTZA 2016-2017



19. Irudia. Eraikin txikiko planoak. 3 urte A gelaren kokalekua eta eskura dituen espazioak (komuna eta patioa). Joakin Lizarraga I.P. (2016-2017)

HAUR HEZKUNTZA 2016-2017



20. irudia. Eraikin txikiko planoak. 3 urteko txikiek egunerokoan erabiltzen dituzten ohiko espazioak. Joakin Lizarraga I.P. (2016-2017)

Haur Hezkuntzan txokoen bidezko metodologia jartzen da praktikan, non ikasgela bakoitzean txoko desberdinak ezberdintzen dira. Hiru urteko txikien kasuan, hauetan ematen dituzte egunaren ordu dezente, eskura dituzten guneak hurrengoak izanik: etxe, arte-, ipuin-, bloke- eta puzzle-txokoak. Hauetan dagoen materiala anitza da, baina modu ordenatu batean egoten da beti, objektu bakoitzak gordetzeko toki propioa izanik.

Honekin batera, errutinei garrantzi handia ematen zaie, egunero ekintza berdin batzuk eginez; ikasgelara sartu bezain pronto pasabidean berokiak uzten dituzte, bakoitzak bere argazkia duen esekitoki horretan. Jarraian egunari ongi etorria egiten diote asanblada batekin, non egun horretan zenbat lagun etorri diren kontatu, eguraldia begiratu, e.a. egiten den. Hamaiketako hartu baino lehen, komunera joaten dira eskuak garbitzera, segituan mahaietan eseriz eta hamaiketako hartuz. Patiora ateratzeko berriro pasabidera buelta doaz berokiak janzteko. Eguraldiaren arabera, patioa luzatu eta bazkaltzera joan baino lehen berriro asanbladan biltzen dira. Arratsaldean, antzeko errutina jarraitzen da: sartu, berokiak kendu, asanblada, jolastu eta etxera joan aurretik, eguna agurtzeko asanblada.

Ekintza guzti hauek, modu autonomo batean egiten saiatzen dira. Ikaslea momentu guztietan protagonista da eta bera bakarrik egin dezakeen hori berak egin dezala defendatzen duen eskola da, irakaslearen papera, behar izatekotan, laguntza ematea izanik. Segidan, beraz, itsutasuna duen ikasleak txokoen bidezko metodologia zein errutina hauek modu autonomoan egiteko eman beharreko egokitzapenak azalduko dira. Modu honetan, txikiaren parte-hartzea sustatuko dugu bai gelan baita gelatik kanpo ere, haren garapen autonomia hobetuz.

Hitz gutxitan, ikastetxearen tamaina handiegia bada ere, ikusmen desgaitasuna duen ikasle batentzat eskola onargarria da, Haur Hezkuntzan erabiltzen den eraikinak erraztasuna ematen baitu. Horregatik, eta etorkizunean izan ditzakeen arazoak murrizteko, garrantzitsua da 3 urtetik hasita esanguratsua eta egokitua den prebentzioa egitea. Horretarako, jada aipatutako 3 urte A gela da haurraren erreferentzia gela, haren ezaugarriak eta premiak kontuan hartuz hurbileko espazioetan modu autonomo batean aritzeko egokituko dena.

Kasuaren azalpenean aipatu bezala, proposatutako esku-hartzearen helburua itsutasun totala duen ikasle batek ikasgelan, patioan eta komunean modu autonomo batean desplazatzeko aukera izatea da, haren ongizatea bermatuz. Halaber, aukera berdintasuna sustatu nahi dugu, ikasgelan egiten diren ekintza zein errutina guztietan parte-hartzeko aukera emanez. Egoera honetara iristeko, aldaketa batzuk ematea beharrezkoa da. Jarraian, bada, espazio horietan emango diren egokitzapenak aurkeztuko dira.

2.2.2.1. Egokitzapenak ikasgelan

3 urte A gela da ikasleak izango duen erreferentzia gunea. Espazio honen aukeraketa hainbat arrazoiengatik izan da: alde batetik, metro gehien dituen da, altzairuak modu ordenatu batean antolatzeko baita beharrezkoa den material espezifikoak erabiltzeko ere aukera emanez. Bestetik, jolastokitik zuzeneko sarbidea du, hau inguratzen duen hesiak lagungarri izanik; hots, ikasgelara iristeko bidea gidatzen duten pezoiak erabili daitezke. Halaber, pasabidetik igaro gabe komunera joateko aukera dago, komunarekin elkartzen duen atea ikasgelan bartan baitago. Argitasunari dagokionez, leiho handiak eta luzeak dituen ikasgela da, egun osoan zehar argi natural handia eta nahikoa ziurtatuz.

Erabaki honetara iristeko, espazioari buruzko behaketa (*Ikus Eranskina III*) egin da. Bertan, espazioaren zenbait ezaugarrien inguruan hausnartzen da, besteak beste: kokapena, baliabideak, altzairuen antolaketa eta kopurua, argitasuna, e.a. Aukeratutako ikasgelari dagokionez, hurrengoak da egindako behaketaren erantzuna (*Ikus 21. irudia, 22. irudia*):

IKASGELA BEHATZEKO ERREGISTROA		
Ikasgela	3 urte A	Tamaina Handia
KOKAPENA		
Sarbidetik gertu	BAI <input checked="" type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
Komunetik gertu	BAI <input checked="" type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
Patitotik gertu	BAI <input checked="" type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
Jantokitik gertu	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input checked="" type="checkbox"/>
Psikogelatik gertu	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input checked="" type="checkbox"/>
ARGITASUNA		
Argi naturala	BAI <input checked="" type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
Leihoen tamaina	Handiak eta anitzak. Guztira sartzeko atea eta 3 leiho (pareta osoa)	
ALTZARIAK ETA MATERIALA		
Altzari kopurua	Mahaiak 10 / aulkiak 24 / armairu-apal 13 / arbela / egurrezko 2 kutxa	
Altzarien antolaketa (armairuak, mahaiak, apalak...)		

21. irudia. Ikasgelaren behaketa orria.

Irudikapena:

Apalategiak
 Armairuak
 Mahaiak
 Arbela
 Kutxak

Material kopurua Anitza (eskolako materiala, puzzleak, liburuak, egurrezko blokeak)

Materiala gordetzeko lekua Armairuak, apalak, kutxak (egurrezkoak, plastikozkoak eta kartoizkoak)

Material egokitua BAI EZ

Zein

OHARRAK:


- Kokapena: Jantokia eskolako beste eraikinean dago.

Psikomotrizitate gela, eraikin berdinean dago, baina 3 urte A gelatik urrunegi.


- Argitasuna: Argi naturala dago gelan, leiho handiak eta anitzak ditu, baina gelako sarrera ondoan aterpea dago. Horrek, argitasun nahiko kentzen du.

22. irudia. Ikasgelaren behaketa orria.

Behaketan aztertu daitekeen bezala, altzairu eta material anitza duen gela da (*Ikus 23. irudia*). Hauek modu ordenatu batean dauden arren, ikaslearen mugimendu autonomia errazteko zenbait aldaketa egingo dira (*Ikus 24. irudia*), hala nola: armairu bat, egurrezko bi kutxa eta mahai handi bat kenduko dira, baita hasieran zegoen mahai txiki bat tokiz aldatu ere.




23. irudia. 3 urte A gelaren plano.



24. irudia. Egokitutako 3 urte A gelaren planoak.


Ikasgela egokitzeko orduan, gelan erabiltzen den metodologia (txokoak) mantenduko da (*Ikus 25. irudia*); izan ere, esku-hartzearen printzipio nagusietariko bat normalizazioa eta aukera berdintasuna denez, txoko hauek mantentzea garrantzitsua da. Hori horrela, ikasgela bost txoko ezberdinetan (etxe-, puzzle-, ipuin-, arte- eta bloke-txokoak) banatuta egoten jarraituko du.



25. irudia. Ikasgelak izango dituen bost txokoak.


Umea bost gune hauetara laguntza jaso gabe iristeko, bi erreferentzia nagusi erabiliko dira gelan: patioiko sarbideta eta gela erdian aurkitzen den mahaia. Honekin batera, testura ezberdineko tapizak ere jarriko dira lurrian, etxe-, puzzle- eta ipuin- txokorako bidea gidatuko dutenak.

Bloke- zein arte- txokora iristeko, patioetik sartzen den atea izango da bidea hasteko puntua. Ikasleak ukimena erabiliz, pareta eta altzairuen bidea jarraituko du, bi gune horien erdian aurkitzen den apalategira iritsi arte (*Ikus 26. irudia*). Puntu horretara iritsi dela ziurtatzeko, geroago azalduko diren objektuak egongo dira txikiaren eskura.




26. irudia. Patioko sarbideetik bloke eta arte txokoen erdian dagoen apalategiraino doan bidea.


Bloke eta arte txokoa banatzen duen apalategi horretatik, ikasgelaren erdian aurkitzen den mahaira doan bidean artilezko bolak dituen tapiza luzea jarriko da (*Ikus 27. irudia*). Modu honetan, umeak bi bide jarraitzeko aukera du: altzairuak jarraituz arte-txokora joatea (*Ikus 28. irudia*) edo tapiza jarraituz beste erreferentzia nagusia den mahaira iristea (*Ikus 29. irudia*).



27. irudia. Artilezko bolaz osatutako tapiza.




28. irudia. Bloke eta arte txokoen artean dagoen apalategitik, arte-txokora joateko bidea.



29. irudia. Bloke eta arte txokoen artean dagoen apalategitik, ikasgelaren erdigunean dagoen mahaira joateko bidea.

Erdian kokatzen den mahaira iristean, bi bide ezberdin jarraitzeko aukera du (*Ikus 30. irudia*). Bide horretan lehenengoa (irudian arrosa dena), ipuin txokora eramango du haurra eta ile finez osatutako alfonbraz osatuta egongo da (*Ikus 31. irudia*), zeinak irakurtzeko gune osoa inguratuko duen. Bigarren bidea (irudian morea dena), puzzle-eta etxe-txokoa bereizten duen apalategira iritsiko da. Horretarako, soka lodi batez osatutako alfonbra txiki eta borobilak erabiliko dira (*Ikus 32. irudia*). Apalategi horretan, hurrengo paragrafoetan azalduko diren objektuak erabiliko dira, bi txoko horiek bereziko helburuarekin.



30. irudia. Ikasgelaren erdigunean dagoen mahaitik jarraitu daitezkeen bi bideak.




31. irudia. Ile finez osatutako alfonbra.



32. irudia. Soka lodi batez osatutako alfonbra txiki eta borobila.

Ikasgelan altzairuen moldaketa eginez eta beharrezkoak diren testura ezberdineko alfonbrak jarritz, hurrengoak izango da gelaren argazkia (*Ikus 33. irudia*):




33. irudia. Altzairuen moldaketa eta testura ezberdineko alfonbrak ikasgelan.

Momentu bakoitzean aurkitzen den txokoa zein den jakiteko baita hurrak nahi duen txokoa aukeratzeko ere, altzairuetan gune horrekin erlazionatutako objektua egongo da itsatsita (*Ikusi 34. irudia, 35. irudia, 36. irudia*): bloke txokoan egurrezko pieza txiki bat,


arte txokoan errotulagailu bat, ipuin txokoan liburu txiki bat, puzzle txokoan puzzle pieza bat eta etxe txokoan plastikozko zartagin txiki bat. Horrela, ukimena erabiliz bere burua espazioan kokatzeko erraztasun handiagoa izango du.



34. irudia. Bloke txokoa ezagutzeko itsatsita dagoen objektua.



35. irudia. Arte txokoa ezberdineko objektuaren argazkia.




36. irudia. Ipuin, puzzle eta etxe txokoak ezagutzeko itsatsita dagoen objektua.


2.2.2.2. Egokitzapenak pasabidean

Pasabidea eguneko errutinetan sartzen den espazioa da, ikasleek eskolara sartu bezain pronto gune honetara joaten baitira haien berokiak zintzilikatzera. Ikusmen desgaitasuna duen ikasleak ekintza hau modu autonomo batean egin dezan, ikasgelatik honetara joaten den bidea baita esekitokiak ere egokituko da.

Jolastokitik sartzen den sarbidetik ikaslearen esekitokia izango den horretaraino, plastikozko eta lurrean itsaskorra den zerria jarriko da (*Ikus 37. irudia, 38. irudia*). Horrela, ikaslea gelara sartu ahala, alfonbra txikiak izango duen testura nabaritu eta esekilekuraino iristeko aukera izango du.



37. irudia. Patioko sarbideetik ikaslearen esekitokiraino joaten den ibilbidea.




38. irudia. Ikasgelan eta pasabidean jarriko den plastikozko zerria.

Ikaslearen esekitokia gelatik ateratzean lehenengoa izango da; hau da, lurrean duen alfombra txikia jarraituz, berokia zintzilikatzeko tokira helduko da. Hau zintzilikatzeko lehenengoa izango da, txikiaren altueran egongo dena. Halaber, belaki batez hornituta egongo da (*Ikus 39. irudia, 40. irudia*), ukimena erabiliz bere esekilekua dela ziurta dadin.



39. irudia. Esekitokia parez pare begiratuta.




40. Irudia. Esekitokia alde batetik begiratuta.

Garrantzitsua da, gainontzeko ikaskideei pasabidea ordenatua eta garbia egon behar dela azaltzea, berokiak haien lekuetan egon behar dutela adieraziz. Horrela, laguna lagundu eta ekintza hura erraztasun handiagoarekin egingo duela esango zaie.


2.2.2.3. Egokitzapenak komunean

Komunari dagokionez, ez da egokitzapen handirik egingo. Ikaslea komunaren bidea jarraitzeko, bi dira eskura dituen aukerak: lehenengoa ipuin-txokotik abiatuko da (*ikus 41. irudia*), non bertan dagoen mahai txikia ikaslearen erreferentea izango den. Hortik abiatuta, pareta jarraitu eta komuneko atera iritsiko da.



41. irudia. Ipuin txokotik abiatuz komunera iristen den bidea.

